ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko abenduaren 28a, asteazkena • 149 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Behin betiko onartzea Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Udalbatzak 2022ko urriaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari buruz hartutako erabakia (2022ko azaroaren 4ko ALHAO, 126 zk.an argitaratua) jendaurrean jartzeko epea igaro denez, eta bertan erreklamaziorik aurkeztu ez denez, ordura arte behin-behinekoa zen erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan jasotakoa betez, zerga ordenantza horretan aldatutako testua argitaratzen da, zeinak ondorioak izango baititu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera; honela dio, hitzez hitz:

9. artikulua

Karga-tasak honela zehaztuko dira:

— Obra handiak (exekuziorako proiektu teknikoa eskatzen duten eraikuntza-lanak, instalazioak eta obrak): ehuneko 4,2.

— Etxebizitzen birgaitze integralerako obra handiak: obra mota horiek gauzatzeko, proiektu tekniko bat beharko da. Birgaitze integraltzat hartuko da, gutxienez, egitura-sistema, barne-banaketa, fatxadak, estalkia, saneamenduko eta ur-hornidurako sare komunak eta instalazio propioak aldi berean berritzen edo sendotzen jarduten duen esku-hartze oro, hori guztia etxebizitzari kalifikatu zaion erabilerarako baldintza egokiak itzultzeko: ehuneko 3.

— Obra handien erregularizazioa: ehuneko 5.

— Obra txikiak (exekuziorako proiektu teknikorik eskatzen ez duten eraikuntza-lanak, instalazioak eta obrak): ehuneko 3.

— Obra txikiak erregularizatzea (exekuziorako proiektu teknikorik eskatzen ez duten eraikuntza-lanak, instalazioak eta obrak): ehuneko 5.

— Obra txikiak (exekuziorako proiektu teknikorik eskatzen ez duten fatxadak berritzeko lanak eta teilaberritze-lanak): ehuneko 0,3.

— Obra txikiak erregularizatzea (exekuziorako proiektu teknikorik eskatzen ez duten fatxadak berritzeko lanak eta teilaberritze-lanak): ehuneko 3.

— Lursailak ganaduarentzako sare bidez ixtea, harlangaitzezko hormak eraiki edo berritzea, eta negutegiak instalatzea: ehuneko 1.

— Lursailak ganaduarentzako sare bidez ixtea erregularizatzea, harlangaitzezko hormak eraiki edo berritzea, eta negutegiak instalatzea: ehuneko 2.

Artikulu honen ondorioetarako, erregularizaziotzat hartuko dira obra hasita edo eginda dagoenean eskatzen diren obra-lizentziak, nahitaezko obra-lizentziarik gabe.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Gainerako kasuetan, 2020ko abuztuaren 19ko 93 zk.dun ALHAOn argitaratutako ordenantza, indarrean dagoena, aplikatuko da.

Guztien jakin dezaten argitaratzen da.

Izarra, 2022ko abenduaren 21a

Alkatea
XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.12.28 06:21:52 Z